

Txillardegi

1957an ezagutu nuen Jose Luis. Hasieratik izan nuen harreman ona eta Iñaki Larramendirekin eta Rafa Albisurekin batera talde polita osatu genuen. Ondo konpontzen ginen. Jose Luis jartzen genuen pianoa jotzen bere Ondarretako etxean eta guk multikopistarekin aritzen ginen lanean. Hori bai, Jose Luis oso pertsona beroa eta serioa zen, ez zuen bromarik maite. Ni Donostian peña taurina bateko kide egin nintzenez bere onetik atera zen.



Federico Krutwig

Pertsonaia atipikoa zen, literaturaz izugarri zekien, hizkuntzak maite zituen eta nik ere maite ditut; argazkilaria zen eta ni ere bai... politika alde batera utzita ere, orduak hizketan emateko adina zaletasun partekatzen genituen. Distiratsua zen, ikusgarria, esajeraria, geniala. *Vasconian* esaten dituen gauzak ere esaten ahal zituen beste modu batera. Pacelli Aita Santuaren kontra esaten dituenak, esate baterako, gogorrak ziren Benito del Valle bezala baraua egiten zuten katolikoentzat.



Juan San Martin



Carmen Retenaga

Musika gustatzen zait, bertsolaritza ere bai, antzerkia zer esanik ez eta irratia ere bai. Denbora daukat eta zer egiten dut? Lau arlo horietan hasi nintzen lanean. Juan San Martinen laguntza nuen. Garai hartan nik bitan banatzen nituen pertsonak: batzuk *ETA*ko militante izateko balio zuten eta proselitismoa egiten saiatzen nintzen haiekin, eta bestetik erakunde batean lan egiteko balio ez zutenak zeuden. Juan San Martin ez zen alderdi edo erakunde batean lan egiteko pertsona. Neu ere ez dakit erakunde batean lan egiteko oso egokia naizen, nahikoa anarkoa naizelako, baina jakin izan dut gehiengoaren izenean amore ematen. Beste batzuek ezin dute hori egin.

Patxi Iturrioz



Elkarrekin hasi ginen Ekinen eta elkarrekin jarraitu genuen *ETA*n nik Iparraldera alde egin nuen arte. Ideologiaz aurrerakoia zelako eta, bertakoak izan edo ez, langileen alde borroka egiten zuelako, elkarrekin ibili ginen Donostian eta inguruko herrietan formazio ikastaroak ematen eta militante berriak batzen. Berehala David Lopez Dorronsorro gerturatu zitzaigun. Hau ere jarrera sozialistakoa zen. *ETA*ren barruan ez ziren denak hala. *ETA* erakundearen barruan ezkerreko jarrerako talde bat osatu genuen 50eko hamarkada bukaeran. 60ko hamarkadaren erdi aldera Patxiarekiko eta Davidekiko harremana galdu nuen.

Felix Likiniano

Nik Likinianorekin ere asko hitz egiten nuen kontu honetaz. Ez zen abertzalea. Anarkista libertarioa zen eta nolabait nazioen gainetik begiratu nahi zuena. Ea zergatik gure borroka ez genuen Estatu espainiar osora zabaltzen galdetzen zidan beti. Espainia osorik liberatzea nahi zuen. Badakit ondoren harreman gehiago izan zuela *ETA*ko jendearekin eta uste dut gure borroka ulertzerantz iritsi zela eta abertzaletu egin ote zen susmoa ere badaukat, baina ez dakit.



Pertur

Iparraldean ezagutu nuen. Oso pertsona interesgarria zen eta ideiak oso garbi zituen lider bat zela esango nuke. Nik ezagutu nuen oso kezkatu zebilen trantsizioaz. Beharrezkoa ikusten alderdi abertzale eta ezkerreko bat eraikitzea egoera berriari aurre egiteko eta *EIAREN* sorreran hartu nuen parte. Berrito marxismora itzultzeko aukera aurkitu nuen. *ETA* beti izan da mugimendu bat, jarrera ezberdinen bilduma.



Jorge Oteiza

58an uste dut ezagutu nuela, Nestor eta biak Irunen elkarrekin bizi zirenean, Frantziako ibilbideko etxe famatu horretan. Nik asko tratatu nuen Oteiza eta nire anaiak gehiago. Esan dizut lehen, bankuan lan egiten zuen anaiak eramaten zizkiola kontuak. «Mi Pavarotti privado» deitzen zion, anaia oso musikazalea delako eta opera bereziki maite duelako. Zarautzera bisitan joaten zitzaionean Begoñak, zaintzaileak, Oteiza ohean zegoela esaten zion batzuetan, eta Jorgek nire anaiaren ahotsa entzuten bazuen, barrura sartzeko esaten zion, altxatzen zen ohetik pijama soinean zuela eta «Mi Pavarotti, pasa, a ver ¿qué puedes cantar hoy?», galdetzen zion eta anaiak esaten zion ariaren bat, ez dakit adibidez *Tosca* kantatuko ziola eta Oteizari izugarri gustatzen zitzaion tenore batek bere logelan zerbait kantatzea. «Esto me hace feliz, en pijama, en mi cama y un tenor cantándome un aria», esaten omen zion.



Arturo Delgado

Marc Legasse



Gizon baikorra, bitalista eta errebeldea. Frantsesez oso ondo idazten zuen. 60ko hamarkadan Biarritzen panfleto harrigarriak idazten zizkigun. Berak banatzen zizkigun eskura, batzuetan bere alabak lagundurik. Abertzale erabatekoa zen, osoa, eta poztu egin zen gu Ipar Euskal Herrira iristen hasi ginenean. Gero uste dut Pasai Donibanera joan zela bizitzera bolada batez eta ondoren Bermeora.

liburu gomendatua

MAIATZA




Joxean Agirre
ENEKO IRIGARAY,
ALJERIAR KONEXIOA
ETAko sortzaile baten
ibilerak

1936an jaio zen Eneko Irigaray, ETAko sortzaileen taldean gazteena eta atipikoen ere bai seguru asko. Iniziatiba handikoa, marxista goiztiarra eta heterodoxo samarra, ez zuten inoiz atxilotu, ez zuen espetxerik zapaldu eta 1961ean falangistaz beteta Donostiara zihoan trenaren kontra burutu zuten atentatuaren ondoren atxilotetak hasi zirenean muga pasatzea erabaki zuen, baina Ipar Euskal Herrian ere ez zuen errefuxiatu paperik eskatu eta espainiar pasaportearekin jarraitu zuen eta jarraitu du geroztik ere bizitzen egon den lekuetan egoiliar gisa lan eginez.

1965eko martxoan iritsi ziren Argelera Eneko Irigaray eta Julen Madariaga, lehenik Estatu frantsesetik kanporatuak izan eta ondoren sei hilabeteko espetxe zigorra jaso ondoren ihesi. Aljeria independentzia lortu berria zen eta mundu osoko liberazio mugimenduek ordezkaritzak zituzten. Eneko Irigaray bertan emango zituen ondorengo hamaika urteak, ETaren ordezkaritzaren kargu. Hala, bada, donostiarrak ez du behar bada eragin funtsezkorik izan ETaren bilakabide estrategikoan, erabakiak hartzeko orduan beti minorian egotea egokitu baitzitzaion, baina bere lana ezinbestekoa izan zen nazioartean erakundeak izan zuen proiektioan.

EGILEA



Joxean Agirre Odriozola (Azpeitia, 1949) euskal idazle eta kazetaria da. Soziologia ikasi zuen Parisen eta kazetaria izan da *Egin* eta *Gara* egunkarietan. Hainbat nobela idatzi ditu: *Romain zen bere izena*, *La lutte finale*, *Zwei Frauen*, *Adiskide baten nuen Gizajoen katalogoa* eta *Goldsmithen ikaslea*. Aipatu eleberriez gain, *Hitza hitz: Txillardegirekin solasean* liburu ere argitaratu zuen, Jose Luis Alvarez Enparantza *Txillardegiri* egindako elkarrizketa luzea; hau bere bigarren elkarrizketa liburu da.

aldaketa **apirilaren 25a** baino lehen

0517006 TXALAPARTA

BIOGRAFIA

144 or.

Salneurria 15,80 € inguru

Bazkideak 12,64 €

